

Bizkaiko kirol-erakundeentzako zerga-arloko  
eta lan-arloko oharbideei buruzko jardunaldi  
praktikoa

1. Gidaren aurkezpena: Zer informazio jasotzen duen eta nola dagoen antolatuta.
  2. Lan-legeriaren arloan izan diren aldaketa nagusiak
  3. Zerga-arloko lege-aldaketa nagusiak eta aldaketa horiek non kontsultatu.
  4. Kontsulta lotesleei buruzko azalpena: zer diren, non dagoen haietarako sarbidea, eta nola formulatu.
-

AURKIBIDEA

---

## 5. Zerga-arloko ohiko galderei erantzuna ematea.

## 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Informazioa egituratzeko modua ahalik eta intuitiboena izan dadin saiatu gara, funtsezko bi bloketan banatu dugu:
    - Lan-arloko gaiak.
    - Zerga-arloko gaiak.
  - Lan-arloko gaien sailean:
    - Besteren konturako lan-harremanen, boluntarioen eta beken (lan-harremanik ez dakartenak), norberaren konturako langileen (autonomoak) eta kasu berezien (langabeak, erretiratuak, DBEa jasotzen dutenak) arteko bereizketa
      - Besteren konturako lanen kasuan dauden kontratu-motak.
      - Langile autonomoen araubide berezia
      - Boluntarioen baldintzak eta mugak
    - \* Atal honek aldaketa garrantzitsuak izan ditu lan-erreforma berriaren ondorioz.
-

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Zerga-arloko oharbideen sailean:
    - Hiru bloke handi: Kirol-klubak, pertsona fisikoak eta kirol-ekitaldiak.
    - Bloke bakoitzaren barruan, honela sailkatzen dira: zerga-motak (BEZa, SZ, PFEZa) eta ohiko galdera zehatzak (adibidez: babes-kontratuak).
    - Zerga-motaren araberako azpi-zatiketa espezifikokoak. Adibidea: BEZaren kasuan, eragiketa zergapetuen, ez-zergapetuen eta zergapetu baina salbuetsien arteko aldearen azalpena eta haietako bakoitzaren adibideak.
-

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Bizkaiko kirol-kluben atalean:
    - Jarduera ekonomikoak.
    - Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa)
      - Jarduera EZ zergapetuak (ez daramate BEZik)
      - Jarduera zergapetu baina salbuetsiak: oro har BEZa ezarrita dute, baina [7/1994 BEZFaren 20. artikuluan](#) ezarritako betekizun jakin batzuk betetzen dituztenez, ez daude kargaren pean. (adibidez: izaera sozialeko erakunde pribatu gisa aitortutako klub bateko bazkideen kuotak)
    - Jarduera zergapetuak (BEZa daramate)
      - Tasa orokorra ( % 21eko BEZa): Kirol-ekipamenduen salmenta.
      - Tasa murriztua ( % 10eko BEZa): Kirol-lehiaketa edo -ekitaldi afizionatuetako sarrerak.
-

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Bizkaiko kirol-kluben atalean:
  - Sozietateen gaineko zerga:
  - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
  - Gai espezifikoak:
    - Diruzko eta gauzazko babes orokorrak.
    - Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubide berezia eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak.
  - Dohaintzak.
  - Aurkeztu beharreko zergen ereduak.

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Pertsona fisikoak atalean:
  - Lan- eta boluntariotza-arloko oharbideak.
  - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
  - Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.
  - Balio erantsiaren gaineko zerga.
  
- Kirol-ekitaldiak atalean:
  - Lan- eta boluntariotza-arloko oharbideak.
  - Sarrerak saltzea eta oparitzea.
  - Arbitroak.
  - Babesak

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Kirol-ekitaldiak atalean:
    - Kamiseten, ekipamenduen, *merchandising*aren, oroitzapenezko objektuen eta abarren salmenta.
    - Sariak.
    - Bizkaian edo Espainian bizi diren kirolari profesionalak kontratatzea.
    - Kronometraje-zerbitzuak.
    - Ekonomi jardueren gaineko zergako epigrafeak.
    - Izaera sozialeko establezimendu pribatutzat jotako irabazteko asmorik gabeko kirol-klubek eta kirol-federazioek antolatutako ekitaldiak.
    - Merkataritza-erakunde batek (enpresa batek) antolatutako ekitaldiak.
    - Pertsona fisikoek antolatutako ekitaldiak.
-

# 1. GIDAREN AURKEZPENA: ZER INFORMAZIO JASOTZEN DUEN ETA NOLA DAGOEN ANTOLATUTA.

---

- Atal espezifikoak:
    - Eskudirutan egindako ordainketak eta halakoek dituzten mugak.
    - Dokumentu- eta zerga-betebeharrak (Adibidea: faktura batek zer informazio izan behar duen osoturik dagoela jotzeko)
    - Aurkeztu beharreko zergen ereduak.
  - Terminologia: Gidan zehar aipatu diren eta zalantzaren bat sor lezaketen gaiei buruzko definizioak barne.
  - Aplikatu daitezkeen zehapenak: Zer gertatzen den legean xedatutakoa betetzen ez bada. Lan- eta zerga-arloetako zehapenak eta eskudirutan egindako ordainketen ziozko zehapenak barne jasotzen ditu.
  - Legeria aplikagarria: lan- eta zerga-arloetakoa, kirolari lotutakoa, eskudiruzko ordainketei buruzkoa eta Euskadiko elkarteei buruzkoa.
  - Gidan aipatutako kontsulta lotesleak eta bibliografia.
-

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- **Legezko oinarria:** [32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa.](#)
- HEZIKETA-KONTRATUAK: Langileen Estatutuaren 11 artikulua.
  - Kendu egin dira aurreko modalitateak, eta, haien ordeztan, heziketa-kontratu bakar bat utzi da, 2 aldaera dituena:
    - Txandakako prestakuntza-kontratua (lehengo *prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua*)
    - Ikasketa-mailari egokitutako praktika profesionala eskuratzeko prestakuntza-kontratua (lehengo *praktikaldiko kontratua*)

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA-KONTRATUA:
  - Helburua: Lan-jarduera unibertsitateko ikasketekin, LHkoekin edo antzekoekin bateragarri izatea.
  - Hartzaileak: Prestakuntza-kontratu bat egiteko oraindik titulu ofizialik ez dutenak. Oro har, 30 urtera arteko pertsonekin egiten da.
  - Iraupena: Gutxienez, 3 hilabete; gehienez, 2 urte.
  - Beharrezkoa da prestakuntzak teoria (zentroan) eta praktika (enpresan) uztartzea.

\* Prestakuntza-planak edukia, egutegia eta jarduerak jaso behar ditu. 2 tutoreren tutoretzapean egon behar du: Prestakuntza-eremuko pertsona kualifikatu bat, eta lantokiko beste bat.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA-KONTRATUA:
    - Lan-denbora: lanaldiaren % 65 izango da, gehienez, lehen urtean, eta % 85, bigarren urtean.
    - Ordainsaria: Lehen urtean, EZIN izango da izan % 60tik beherakoa, eta, bigarren urtean, % 75etik beherakoa. Erreferentziako parametroa hitzarmen kolektiboa izango da, edo, halakorik ezean, legezko gehieneko lanaldia.
    - Oharra:
      - EZIN izango da probaldirik ezarri.
      - Kontratu-mota hau duten pertsonak EZIN izango dute aparteko ordurik egin.
-

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- PRAKTIKA PROFESIONALA ESKURATZEKO PRESTAKUNTZA-KONTRATUA:
  - *Praktikaldiko kontratua* ordeztuko du, baina aldaketa batzuekin:
  - 3 urtera murrizten da ikasketak amaitzen direnetik kontratua burutu arte; edo 5 urtera, desgaitasuna duten pertsonen kasuan.
  - Gehieneko iraupena: Urte 1.
  - •Gutxieneko iraupena: 6 hilabete.
  - Probaldia: Hilabetea.
  - Enpresaren prestakuntza-betebeharrak areagotzen dira (banakako prestakuntza-plan bat egitea eta tutore bat izendatzea aurreikusten da)
  - Lanpostua ikasketa-mailari egokituta egongo da.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- PRAKTIKA PROFESIONALA ESKURATZEKO PRESTAKUNTZA-KONTRATUA:
  - Kontratua amaitzean, langileak egindako praktikaren edukiaren ziurtagiria jasotzeko eskubidea izango du.
  - Kontratua amaitu eta gero pertsonak enpresan jarraitzen badu, ezin izango da probaldi gehiagorik itundu, eta prestakuntza-kontratuaren iraupena zenbatuko da enpresako antzintasunari dagokionez.
  - Ordainsaria:
    - Hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa, halakorik balego.
    - Inoiz ez da izango LGS baino txikiagoa izango, egindako lanorduen proportzioan.

\*OHARA: Lege-iruzurrez egindako prestakuntza-kontratuak edo enpresak prestakuntza-betebeharrak betetzen ez ditueneko kontratuak kontratu mugagabe arruntzat hartuko dira.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- ALDI BATERAKO KONTRATUAK([LEaren 15. artikulua](#))
  - Behin-behinekotasunari mugak ezarri zaizkio.
  - Aldi baterako kontratazioa egiteko bi kasu bakarrik geratu dira: ekoizpen-inguruabarrek eragindako kontratazioaren kasua, edo langilea ordeztearen ziozko kontratazioaren kasua.
  - Aldi baterako kontratuan hau adierazi behar da:
    - Aldi baterako kontratua egiteko arrazoia.
    - Hura justifikatzen duten arrazoiak.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- OHARRA:
  - 2021eko abenduaren 31 baino lehen sinatutako aldi baterako kontratuak aurreko araudiaren arabera arautuko dira, haien indarraldia amaitu arte.
  - Aldi baterako kontratuen kateatze-aldia 18 hilabetera murrizten da, 24 hilabeteko erreferentzia-aldi batean. \* Muga hori gaindituz gero, langileak langile finko bihurtuko dira.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- EKOIZPEN INGURUABARREK ERAGINDAKO KONTRATUA:
    - Indarrean 2022ko martxoaren 30etik.
    - Aurreikusi ezin diren egoeretarako:
      - Lan-kargan noizbehinkako eta ezin aurreikusizko gehikuntza bat gertatzen denean eta horrek desoreka eragiten duenean, oporraldia berariaz barne (Adibidea: udan begiraleak kontratatzea)
      - Gehieneko iraupena: 6 hilabete (edo urtebete, hitzarmen kolektiboak hala zehazten badu)
    - Aurreikusi daitezkeen noizbehinkako egoeretarako:
      - Egoera horiek argi identifikatu behar dira kontratuan.
      - Gehieneko iraupena: 90 egun urte naturaleko (EZ ondoz ondokoak)
- OHARRA: Urteko azken hiruhilekoan, enpresek halako kontratuen erabilerari buruzko urteko aurreikuspena helarazi beharko diete langileen legezko ordezkariari.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- ORDEZKAPENAREN ZIOZKO KONTRATUA
  - Lanpostua gordetzeko eskubidea duen langile bat ordezkatzeko, kontratua etenda duen bitartean.
  - Kontratuak ordezkaturako pertsonaren izena eta ordezkapenaren arrazoia zehaztu behar ditu.
  - Berritasuna: Langilearen absentzia hasi baino 15 egun lehenago kontratua egiteko aukera, zereginak ordezteko ardura duen pertsonari lekualdatzeko lanak errazteko.
  - Hauetarako erabil daiteke:
    - Lanaldi murriztua osatzeko.
    - Lanpostu hutsak hautaketa-prozesu batean betetzeko, gehienez 3 hilabetez.
  - OHARRA: Legezko baldintzak ez betetzeak kontratu mugagabea egitea dakar.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- ORDEZKAPENAREN ZIOZKO KONTRATUA
  - Kontratu mota hori duten pertsonak honako hauek izango dituzte:
    - Kontratu mugagabea duten langileen eskubide berak.
    - Hutsik dauden lanpostuetarako eta prestakuntza-programetarako sarbidea.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- ALDIZKAKO KONTRATU FINKOA
  - [LEren 16. artikulua](#)ren idazketa berriaren helburua da kontratazio mugagabe mota honek enpresaren malgutasun-premia batzuk –orain arte aldi baterako kontratuen bidez betetzen zirenak– bereganatzea.
  - Aldizkako kontratu finkoa urte-sasoiko lanetan eta aldizka eman beharrekoetan erabil daiteke.
  - Lehen obra edo zerbitzu jakin baten aldi baterako kontratuaren bidez bideratzen zena orain aldizkako kontratu finkoa erabiliz gauzatu daiteke.
  - Aldizkako kontratu finko berriak zuzenean edo ABLE baten bidez egin daitezke. (ABLEko langile batek hainbat aldizkako kontratu finko izan ditzake enpresa erabiltzaile desberdinekin)

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- Merkataritzako kontraten eta azpikontraten esparruko erreferentziako kontratua.
- Malgotu egiten da lanaldiaren zehaztapena kontratuan.
- Enpresek aukera gehiago dituzte halako kontratuak egiteko, aldizkako beharrianak betetzeko.
- Urte-sasoiko eta denboraldiko lanetarako erabil daiteke.

\*Adibidea: Beharrian finkoetarako, 90 egun baino gehiago urte natural batean.

- Kontratu-mota hau dutenak babesteko neurriak hartzen dira.
- Modua:
  - Idatziz.           \*OHARA: Idatziz egin ezean, kontratu finko normaltzat jotzen da.
  - Jardueraren funtsezko elementuak zehaztu behar ditu.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- Kontratu-mota hau dutenen lan-baldintzak hobetzen dira:
- Aldizkako kontratu finko 1 izateak ezin du ukitu kontziliazioa.
- Antzinatasuna zenbatzeko, lan-harreman osoaren benetako iraupena hartuko da kontuan.
- Kontratu-mota hau dutenei enpresan hutsik dauden kontratu finko arrunt guztien berri eman beharko zaie.

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- Aldi baterako kontratazioan nabarmendu beharrekoak:
    - Kontratua mugagabetzat jotzeko kasuek beren horretan jarraitzen dute. Ildo horretan, nahikoa da aldi baterako kontratazio-arauak ez betetzea kontratua mugagabetzat jotzeko.
    - Kontratuak errepikatzeari dagokionez: Murriztu egiten dira, eta mugagabe bihurtzeko kasuak gehitu. \* Nahikoa da 18 hilabetean errepikatzea 24 hilabeteko epean, ondorio hori gertatzeko.
  - Aldi baterako kontratazioari buruzko arauak haustea administrazioko arau-hauste larria da oraindik ere.
  - Handitu egin da kotizazio gehigarriaren zenbatekoa aldi baterako kontratuetan, eta batez ere 30 egunera arteko kontratuetan ezarri da. ([GSLOren 151. art.](#))
-

## 2. LAN-LEGERIAREN ARLOAN IZAN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

---

- Arau iragankorrak:
  - [32/2021 LED](#)ren 1. xedapen iragankorretik 3.era bitartekoekin bat etorriz, indarrean jartzean zeuden aldi baterako kontratuak edo iraupen jakineko kontratuak aurreko araubidearen mende jarraituko dute gehieneko iraupena amaitu arte.
  - 4. xedapen iragankorrak, berriz, aukera ematen du 2021eko abenduaren 31tik 2022ko martxoaren 30era bitartean obra eta zerbitzu jakin baterako kontratuak eta merkatu-inguruabarrek eragindako behin-behineko kontratuak egiteko, baina horien iraupena ezingo da izan 3 hilabetetik gorakoa.

### 3. ZERGA-ARLOKO LEGE-ALDAKETA NAGUSIAK ETA ALDAKETA HORIEK NON KONTSULTATU.

Zerga-araudia konplexua da eta behin eta berriz berrikusi behar da.

Bizkaiko Foru Ogasunaren araudi eguneratua [esteka honetan](#) egiazta daiteke.

Orrialdean honako hauek aurkituko ditugu:

- Indarrean dagoen zerga-araudia: Bai azken beritasunak, bai BFOk zergetako bakoitzerako onetsi dituen eta indarrean dauden foru-arauak.
- Zerga-informazioa, kontsultak, irizpideak eta ebazpenak, praktikan gertatu diren arazo espezifikoak aztertzen dituztenak.

#### 4. KONTSULTA LOTESLEEI BURUZKO AZALPENA

---

- Zer diren: Herritarren kontsultei zerga-administrazio eskudunak eman dizkien erantzunak, tributu-arloko arauak aplikatzeko irizpide administratiboei buruzko informazioa ematen dutenak.
- Kontsulten bidez argitutako gai motak:
  - Zergaren aplikazio-araubidea
  - Eragiketen kalifikazioa (Adibidea: BEZaren kasuan, eragiketa bat zergapetuta edo salbuetsita dagoen, hau da, BEZik daraman ala ez)
- Kontsultetarako sarbidea:
  - Ogasun Ministerioaren kontsulten kasuan: Tributuen Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) [esteka honetan](#) .
  - BFA/BFOren kasuan: [Esteka honetan](#)

#### 4. KONTSULTA LOTESLEEI BURUZKO AZALPENA

---

- Nola egin galderak, gure zalantzei erantzuten dien kontsultarik ez badago:
  - Ogasun Ministerioaren kasuan, [esteka honetan](#).
  - BFA/BFOren kasuan, tributu-kontsultak aurkeztea doan da. Dena den, komeni da aholkularitza jasotzea. Bizkaibai bidez eskatzen dira. Jarraibideak [esteka honetan](#) .daude ikusgai.

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

### 1. Astebururo, kirol-klub batek sarrera kobratzen du (2 € pertsonako; batzuetan, zozketarako...) eskola-partidak edo partida federatuak ikusteko udaleko kirol-instalazio batean; udalak instalazioaren erabilera laga dio klubari

- **BEZa:** Kirol-klubak Izaera sozialeko kirol-entitate edo -establezimendu pribatutzat jotzeko baldintza guztiak betetzen ditu, bai eta BEZFaren 20.Bat.13 artikuluan ezarritako gainerakoak ere. Hala ere, **sarreraren salmenta dela-eta BEZa ordaindu behar da.** Amateurren kirol-ikuskizunetara joateko sarrerak direnez, aplikatu beharreko zerga-tasa **% 10eko BEZa** izango da:
- **SZ:** Kirol-kluba, irabazi asmorik gabeko erakundea denez, «**partzialki salbuetsita**» **dauden entitateen** barruan egongo litzateke (SZFaren 12.2 art.). Baina sarreraren salmenta **jarduera ekonomiko batetik eratorritako diru-sarreratzat** hartzen da, eta, beraz, erakundearen zerga-oinarriaren parte da, ISren ondorioetarako, eta **% 19ko tasan ordainduko da zerga** sarrera horiek direla-eta.

\* Kasu bera da hau: kirol-federazio batek 10 €-ko sarrera kobratzen du pertsonako, 10.000 lagunentzako edukiera duen udal-pabilioian urtero egiten den kirol ez-profesionaleko ekitaldi jakin baterako.

---

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

### 2. KF batek Bizkaiko klub baten esku utzi du erreginaren koparen finala Bizkaiko kirol-instalazio batean antolatzeko ardura. Nork aitortu behar ditu sarrerren salmentaren ondorioz jasotako diru-sarrerak eta tokiko klubak gestionatutako babesak, eta nola?

- [4/2019 FA](#)ren araubide berezia aplikatu badezake: *Kirol-federazioek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik **salbuetsita** egongo dira baldin eta selekzio nazionalen edo autonomikoen lehiaketa ofizialak edo adiskidetasunezko lehiaketak egitearen ondorioz edo haien emankizunaren edo zabalkundearen ondorioz lortutakoak badira, betiere lehiaketa horien antolaketa federazioen eskumen eksklusibokoa bada. ([V1233-09 kontsulta loteslea](#)).*
  - Kluba sarrerren diru-sarrerekin geratzen bada, diru-sarrera horiengatik BEZa ordaindu beharko da (ez dago inolako salbuespenik aplikatzeko aukerarik), eta % **21eko tasa orokorra ordainduko dute** izaera profesionaleko kirol-ikuskizun bat bada, edo % **10eko tasa**, amateurra bada.
  - **Babesagatiko diru-sarrerei dagokienez: Salbuetsi gabeko errentak, zerga %19ko tasan ordainduko dutenak.** \* *Kluba diru-sarrerekin geratzen ez bada, baina egindako bitartekaritzagatik edo federazioari eman dion zerbitzuren batengatik kobratzen badu, zerga ordaindu beharreko eragiketak izango dira, eta tasa orokorra ordainduko dute ( % 24).*
-

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

### 3. Enpresa batek Bilbon antolatutako kirol-ekitaldi baterako (triatloia, maratoia ...) nahitaezko inskripzioa.

- Kirol-ekitaldi batean inskribatzeko kuotak —lehiaketetan eta txapelketetan parte hartzeko aukera ematen dutenak— ordaintzeak zuzeneko lotura du kirolaren praktikarekin, eta **% 21ean** ordaintzen dute zerga, *salbu eta erakunde antolatzaileak izaera sozialeko entitatetzat jotzeko [BEZAFaren 20.Hiru artikuluan](#) ezarritako baldintzak betetzen baditu. ([V2130-19 kontsulta loteslea](#))*

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

### 4. Pertsona bakoitzeko 20 €-ko inskripzioa , kirol-klub edo guraso-elkarte batek antolatutako asteburuko kirol-campus batean parte hartzeko.

- **Guraso elkarte batek antolatutakoa:** haur eta gazteen hezkuntzarekin lotutako jardueratzat har daiteke ([BEZFAren 20.Bat art.](#) Aplikatuko da: 1) halako jarduerak egiteko baimendutako erakunde batek ematen badu, eta 2) irakatsitako gaiak hezkuntza-sistemako ikasketa-plan baten barruan sartuta badaude. **Kirol-campusa guraso-elkarteak zuzenean ematen badu, BEZa ordaintzetik salbuetsita egon ahal izango da ( [V2530-19 kontsulta loteslea](#))**
- **Kirol-klub batek antolatutakoa:** Kluba izaera sozialeko entitatetzat jotzen bada [BEZAFaren 20.Hiru artikuluan](#) ezarritako moduan, [BEZFAren 20.Bat.13 artikuluan](#) xedatutako **salbuespena** aplikatu daiteke, kirol-zerbitzuen prestazioari buruzkoa.

***\* Azaldutako salbuespena aplikatu ezin bada, aplikatu beharreko zerga-tasa orokorra % 21ekoa izango da.***

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

**5. Federazio batek antolatutako kirol-proba bateko kirolari amateurrentzako diru-sarien eta enpresa batek zirkuitu profesional baten barruan antolatutako proba bateko kirolari profesionalentzako diru-sarien arteko aldea, BEZaren ondorioetarako eta PFEZaren atxikipenaren ondorioetarako.**

- *Erantzuna: hasteko, kirolariak modu indibidualean jarduten du, eta ez klubaren batekin lan-harreman berezia duen kirolari profesional gisa.*
- **BEZa:** Kirol-arloko profesionalak beren jarduera profesional independentean emandako zerbitzuak direla-eta ordaindu beharko da balio erantsiaren gaineko zerga, betiere pertsona horiek enpresaburuak edo profesionalak badira. Hala, lortutako saria jardueraren diru-sarreratzat hartuko da, eragiketa baten kontraprestaziotzat, eta, beraz, BEZa ordaindu beharko du.
- Aitzitik, enpresaburu edo profesional ez diren **lehiakide amateurrek lortutako sariak**, printzipioz, ez dira izango balio erantsiaren gaineko zergaren peko ezein eragiketaren kontraprestazioa, eragiketa hori zergaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen baita.

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

- **PFEZa:**
  - **13/2013 [PFEZFAk](#)**, zerga-ondorioetarako, **ondare-irabazitzat** jotzen du sariak, loteriak, zozketak eta bestelakoak lortzea.
  - **Azaldutako kasuan**, sariak lortzeko jarduera bat (kirol-jarduera) egin behar izateak berekin dakar saria ondare-irabazi gisa kalifikatzeko aukera baztertzea; beraz, azaldutako kasuari soilik heldu dakioke sariak **jarduera ekonomikoen etekintzat jotzen badira**. ([PFEZFAren 24. artikulua](#)) Diru-sarrera horiek jarduera ekonomikoen etekintzat har daitezke, batetik, lan pertsonaletik datozelako eta, bestetik, saritutako pertsonak ekoizpen-baliabideak eta giza baliabideak edo bietako bat bere kontura antolatzea dakartelako, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko, hori gutxienekoa izan arren. \* **Etekin horiek jarduera profesionalengatiko atxikipena izango dute: % 15eko edo % 7koa, kasuaren arabera.**

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

### 6. Nola tributatu edo kudeatu behar dituzte klubek erabilera publikoko udal kirol- instalazioetan ustiatzen dituzten anbiguetatik edo minibarretatik datozen diru-sarrerak?

- **SZri dagokionez, kirol-klubek lortutako errentak salbuetsita egongo dira baldin eta haien helburu soziala edo espezifikoa gauzatzetik badatoz eta jarduera ekonomiko bat egitearen ondoriozkoak EZ badira.** Hala ere, erakundeak egiten dituen jardueretan oinarrituta jarduera ekonomiko bat dagoela ondoriozta badaiteke, jarduera horietatik eratorritako errentak zergapetuta egongo lirateke, eta ez salbuetsita, eragiketak klubetik kanpoko hirugarrenekin zein klubeko kideekin egiten badira ere. Ildo horretan, kirol-klubek garatu nahi dituzten jarduerak (jatetxe eta taberna jarduerak) berekin dakarte baliabide materialak eta/edo giza baliabideak norberaren kontura antolatzea, ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko. Horrek esan nahi du **jarduera ekonomikoak** egin behar direla, eta haien etekinak direla eta **sozietateen gaineko zerga ordaindu beharko da, hots, ez dira salbuetsita egongo.** Lehen adierazi bezala, zerga-tasa **% 19koa** izango da.

## 5. ZERGA ARLOKO OHIKO

---

7. **Kirol-federazio batek 150.000 € fakturazten ditu urtean Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko dendetan eta merkataritza-guneetan kirol-modak saltzeagatik. Negozioa kudeatzen duen komertzialak % 18ko komisioa du, eta gainerakoa, fabrikazio- eta garraio-gastuak eta abar araztuz, garbi geratzen da federazioarentzat.**
- **BEZari dagokionez**, lehenik eta behin, azpimarratu behar da kirol-materiala, oroitzapenak edo/eta *merchandisinga* saltzea: % 21eko **tasa orokorra** ([V3654-20 kontsulta loteslea](#)).
  - **SZri dagokionez, partez salbuetsitako entitatea bada**, kirol-federazioak lortutako errentak salbuetsita egongo dira baldin eta haien helburu soziala edo espezifikoa gauzatzetik badatoz eta jarduera ekonomiko bat egitearen ondoriozkoak ez badira. Hala ere, federazioak egiten dituen jardueretan oinarrituta **jarduera ekonomiko bat (arroparen eta merchansidingaren salmenta, adibidez)** dagoela ondoriozta badaiteke, jarduera horietatik eratorritako errentak **zergapean egongo liriateke, eta ez salbuetsita**, eragiketarik elkartetik kanpoko hirugarrenekin zein elkarteko kideekin egiten badira ere. **Zerga-tasa % 19koa izango da**, lehen adierazi bezala.
  - Erakundeak [4/2019 FA](#) aplikatzen badu, ikusi gorago bigarren galderari emango erantzuna.
-



# ESKERRIK ASKO

---

2022ko martxoak 24